

20. ALDIZKARIA - 2017ko urtarrilaren 30a

36. ALDIZKARIA - 2022ko otsailaren 18a (4.Art-en eta tarifaren aldaketa)

15. ORDENANTZA FISKALA, ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUA EMATEKO PREZIO PUBLIKOAK ARAUTZEN DITUENA

OINARRIA

1. artikulua. Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen 28. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoaren babesean ezarri da ordenantza honetako prezio publikoa.

ZERGAPEKO EGINTZA

2. artikulua. Zergapeko egintza da etxeko laguntza zerbitzua zuzenean ematea, Barañaingo Udalak arlo honi buruz onetsi duen ordenantza ez fiskalean ezarritako baldintzetan.

SUBJEKTU PASIBOA

3. artikulua. Subjektu pasiboak izanen dira 2. artikuluan azaldutako zerbitzuak eskatu eta erabiltzen dituzten pertsonak.

PREZIO PUBLIKOA. TARIFEN SISTEMA

4. artikulua. Artikulu aldatua (2022-02-18ko NAO n argitaratua)

Finantzabideari aplikatzen ahal zaizkion irizpide eta printzipioak ondokoak dira:

–Familia unitatearen definizioa: prezio publikoa kalkulatzeko erabiliko da PFEZan definitzen den familia unitatea:

- Legez bereizirik ez dauden ezkontideek eta adingabeko seme-alabek osatua (gurasoen baimena izanda beraiekin bizi ez direnak salbu); unitate horretan sartzen dira, halaber, judizialki ezgaituta eta guraso-aginte luzatu edo birgaituaren menpe dauden adin nagusiko seme-alabak.
- Berariazko legeen araberrako bikote iraunkor bateko kideek eta adingabeko seme-alabek osatua (gurasoen baimena izanda beraiekin bizi ez direnak salbu); unitate horretan sartzen dira, halaber, judizialki ezgaituta eta guraso-ahal luzatu edo birgaituaren menpe dauden adin nagusiko seme-alabak.
- Legezko banantzearen kasuetan edo, ezkontzaren bidezko loturarik edo bikote iraunkorrik ez dagoenean, aitak edo amak eta batarekin edo bertearekin bizi diren seme-alaba guztiek osatzen dutena, aitzineko atalean aipatu betebeharrak betetzen badituzte.

–Ahalmen ekonomikoa zehaztea: zenbatu beharreko sarrerak eta gastu kengarriak.:

- Zenbatu beharreko diru-sarrerak: interesdunen eta haien familia-unitatearen PFEZren etekin garbien, prestazio salbuetsien eta pentsioen kontzeptuak, eskaeraren aurreko urtekoak..
- Gastu kengarriak: kuotan desgrabazioa izateko oinarria eratzen dutenak, ondoko arrazoiak direla eta: pertsonalak, etxebizitza alokairuan hartu edo erostea, eta menpekotasunagatik emandako laguntzaren ingurukoak (eguneko zentroak, garraioa, etxeko lanak eta bertzelakoak).
- Hileko per capita errenta: aurreko kontzeptuak batu eta familia unitatea osatzen duten kideen kopuruaz eta 12 hilabetez zatituta sortzen dena.

Erabiltzailea PFEZaren aitortpena egitera behartua ez dagoenean, aurreko ekitaldian izandako diru-sarreraren arabera zehaztuko da ahalmen ekonomikoa.

–Janariaren kostuaren oinarritzko unitatea zehaztea:

Janariaren kostua izanen da enpresa esleipen hartzaileak Barañaingo Udalari janari bakoitzeko fakturazten dion kostu egiazkoa (BEZa barne).

–Gainerako zerbitzuen kostuaren oinarritzko unitatea zehaztea:

Zerbitzuaren kostu guztiak egotzi eta emandako laguntzaren guztirako kostuaren balioa, ordu bakoitzeko, zenbat den ateratzeko, honela eginen da:

Urtero zehaztuko da kostu zentro bat, eta horri egotziko zaizkio zerbitzuaren zuzeneko eta zeharkako kostu guztiak: lanaldi osoko familia-langile baten kostua eta gizarte-langilearen eta administrari laguntzailearen kostuaren %15, azken bi profesional horiek ere zuzenean parte hartzen baitute zerbitzuaren kudeaketan.

Guztirako kostua lanaldi osoko familia-langile batek etxeko laguntzarako egiten ahal dituen orduen kopuruaz (lanaldi horren %80) zatituta ateratzen da laguntza orduaren kostua.

–Janariaren tarifaren oinarritzko unitatea zehaztea:

Tarifaren oinarritzko unitatea da janaria erabiltzailearen etxera eramatearen kostu egiazkoa.

Prezio publikoa edo tarifa izanen da laguntza orduaren %100.

–Gainerako zerbitzuen tarifaren oinarritzko unitatea zehaztea:

Zerbitzua etxean ematen iragandako denbora da tarifaren oinarritzko unitatea.

Laguntza orduaren %50 izanen da prezio publikoa edo tarifa.

–Prezio publikoa kargatzeko gero eta gehiagorako eskala:

Karga-escala familia unitatearen per capita errenta garbiari egotziko zaio, eta errenta horrek urteko OAEAParekiko (ondorio askotarako errentaren adierazle publikoa) gordetzen duen proportzioan oinarrituko da.

Eskatzaileak ez badu aurkezten edo betetzen behar den dokumentua, eskatzen dena kalkulatzeko aplikatu beharreko tarifaren oinarritzko unitatea, eta bi alderdiek adosten badute ordenantza honetan jasotako zerbitzuak ematea, Udalak aplikatuko du eranskinean ageri den tarifa-escala altuena (PCEG > OAEAParen %195).

Aplikatu beharreko tarifak ordenantza honen eranskinean agertzen dira.

PREZIO PUBLIKOEN SORTZAPENA

5. artikulua. Tasak hilabete natural osoak bukatutakoan sortuko dira, subjektu pasiboa zerbitzua erabiltzetik gelditzen ez den bitartean. Hasierako edo azkeneko aldiak ez badatoz hilabete naturalekin bat, egun naturalen araberrako hainbanaketa eginen da.

6. artikulua. Aski ongi justifikatu eta baloraturiko inguruabar jakin eta bereziak direla bide, ikusten bada erabiltzaile batendako baremoa aplikatuzetik etortzen den tasa ordaintzea gehiegizko zama dela, zerbitzuko gizarte langileak proposatzen ahal du erabiltzailea diru-sarrera apalagokoen mailan sartzea edo tasa ordaintzetik salbuestea.

7. artikulua. Prezio publikoa hilero ordainduko da, zerbitzuaren sorrarazpena izan eta hurrengo hilabeteko lehenbiziko bost eguneko epearen barnean eta horretarako ezartzen den moduan.

ARAU-HAUSTEAK ETA ZEHAPENAK

8. artikulua. Arau-haustetzat hartuko da, tarifa tikiagoa izateko asmoz aurkezten diren agiri edo aitopenak faltsutzea, baita Udalari ez jakinaraztea ere tarifen kalkulua egiteko kontuan hartu behar diren diru-sarrerak handitu direla.

9. artikulua. Egiten diren arau-hausteak Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legean ezarritakoaren arabera zehatuko dira, eta erabiltzailea zerbitzutik kentzeraino heltzen ahalko da.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenbizikoa.—Ordenantza honetan aurreikusten ez den orotan, Toki Administrazioari buruzko Foru Legean eta Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legean xedatuari jarraituko zaio.

Bigarrena.—Ordenantza fiskal honek Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legean aurreikusitako tramiteak bete ondoan hartuko du indarra.

2022KO TARIFEN ERANSKINA - 36. NAON ARGITARATUA 2022KO OTSAILAREN 18A

I. epigrafea.—Zuzeneko prestazioak

ERRENTA MAILAREN TARTEAK

PCEG (Per Capita Errenta Garbia) \leq OAEAP (Ondorio Askotarako Errenta-adierazle Publikoa)

OAEAP $<$ PCEG \leq OAEAParen %105

OAEAPren %105 $<$ PCEG \leq OAEAPren %120

OAEAPren %120 $<$ PCEG \leq OAEAPren %135

OAEAPren %135 $<$ PCEG \leq OAEAPren %150

OAEAPren %150 $<$ PCEG \leq OAEAPren %165

OAEAPren %165 $<$ PCEG \leq OAEAPren %180

OAEAPren %180 $<$ PCEG \leq OAEAPren %195

PCEG $>$ OAEAParen %195

TARIFAREN ESKALA

3 euroko tarifa finkoa, hilean

6 euroko tarifa finkoa, hilean

Prezio publikoaren %15

Prezio publikoaren %30

Prezio publikoaren %45

Prezio publikoaren %60

Prezio publikoaren %75

Prezio publikoaren %90

Prezio publikoa

II. epigrafea.—Otordu zerbitzua

ERRENTA MAILAREN TARTEAK

OAEAP $<$ PCEG \leq OAEAParen %105

OAEAPren %105 $<$ PCEG \leq OAEAPren %120

OAEAPren %120 $<$ PCEG \leq OAEAPren %135

OAEAPren %135 $<$ PCEG \leq OAEAPren %150

OAEAPren %150 $<$ PCEG \leq OAEAPren %165

OAEAPren %165 $<$ PCEG \leq OAEAPren %180

OAEAPren %180 $<$ PCEG \leq OAEAPren %195

PCEG $>$ OAEAParen %195

TARIFAREN ESKALA

Prezio publikoaren %40

Prezio publikoaren %60

Prezio publikoaren %80

Prezio publikoaren %100

Prezio publikoaren %110

Prezio publikoaren %120

Prezio publikoaren %130

Prezio publikoaren %140